



OIDIOA EDO ERRAUTSA (*Erysiphe necator*):



Oro har, ez da oidio gune esanguratsurik ikusi Arabako Errioxako mahastietan. Gaixotasun endemikoa denez, mahastizainek prebentzio lana egin dute kanpainan zehar.

Gaur egun arte, mahastiak behar bezala babestuta daude, baldintza meteorologikoak aproposak izan direlako, batetik; eta landa lan zorrotza egin delako, bestetik (soberako kimuak kentzea, hostoak kentzea mahats mordoan parean...). Uztaileko bigarren astean egindako euriak onddoak agertzeko arriskua ekarri zuen, baina, oro har, mahastiak azkar tratatu ziren.

Hala ere, eguraldi txarrari adi egotea komeni da, kolore aldaketa gertatu arteko aldia baita mahats mordoarentzat sentikorrena, errautsaren aurrean.

GORRINA (*Plasmopara viticola*):



Gaur egun arte, ez da "gorrin larbatuaren" seinalerik detektatu Arabako Errioxako mahastietan, egin diren tratamenduei esker. Gainera, gaur egungo ingurumen baldintzak ez dira aproposak gaixotasun hori agertzeko. Hori dela eta, ez dugu gomendatzen mahastietan tratamendurik egitea, euririk iragartzen ez bada behintzat.

Kolore aldaketatik aurrera, onddoak ez du mahats mordoa erasotzen. Hala ere, udan bota dezakeen euriari adi egon beharko da, gorrin berantiarra suspertu eta horrek hosto galtzea eragin baitezake.



MAHATS MORDOAREN SITSA (*Lobesia botrana*):



Feromona tranpen bidez egindako helduen harrapaketek erakusten dute sitsaren 2. belaunaldiko helduen hegaldia ari dela gertatzen.

Eragina ez da berdina Arabako Errioxako udalerrri guztietan. Mañuetan, Elciegon, Lantziegon eta Lapueblan ikuskatutako lurzatietan, hegaldi kurbak maximora iritsi dira; Lezan eta Samaniegon, aldiz, ia ez da heldurik ikusi.

Tranpetako hegaldiaren bilakaera ikusi nahi baduzu, jo ezazu hona: <http://www.alava.net/seguimientopolilla/>

Helduen hegaldi kurbek adierazten dute intsektuaren populazioen bilakaera, baina ez dute zehazten zer nolako garrantzia izango duen larben populazioak hurrengo belaunaldian. Hau da, tratamendua noiz eman behar den adierazten dute, baina ez dute esaten tratatu behar diren ala ez, tartean beste hainbat faktore daudelako (klima, kuskua erakargarritasuna eta abar). Gomendatzen dugu mahastia aztertzea eta 2. belaunaldi honetan tratamendua ematea soilik fruitua duten mordoaren %10etik aurrera.

Garrantzitsua da izurri horren jarraipena egitea, sitsak eragiten dituen zauriek lagundu egiten dutelako, gero, **usteldura grisa** sortzen.

USTELDURA GRISA (*Botrytis Cinerea*):



Nahiz eta gaixotasun honek mahatsa biltzeko garai inguruan eragiten dituen kalte handienak, oso zaila da kontrolatzea behin mahats mordoak hartzen dituenetik aurrera.

Horregatik, ezinbestekoa da oidio eta sitsaren balizko erasoak kontrolatzea, horiexek baitira aletan zauriak sortzen dituzten eragile nagusiak. Halaber, komeni da hosto asko ez egotea, mahats mordoak aireztatuta egon daitezen eta produktuak mordoetan sar daitezen.

Gogorarazi nahi dugu ustelduraren kontra egiteko modurik eraginkorrena dela **kolore aldaketaren hasieran** (aleen %5-10 kolorez aldatu denean) tratamenduak egitea.



ARMIARMA HORIA (*Eotetranychus carpini*):



Orban gorrixkak ikusi dira barietate beltz batzuen oinaldeko hostoetan. Gomendatzen dugu mahastiak zaintzea eta babestea hostoan seinaleren bat detektatzen denean eta forma mugikorrek edo atzealdean arrautzak ikusten direnean.

Gomendatzen dugu tratamendua egitea mahatsondo batean akaroek hostoen %60tik gora hartzen dutenean. Tratamendua ematea erabakiz gero, oso komenigarria da akaro fitoseidoengan —batez ere *Typhlodromus* familiakoengan— eraginik ez duen produktua aukeratzea, akaro harrapari bikainak baitira.

ELTXO BERDEA (*Empoasca vitis*):



Intsektuak ikusi dira Arabako Errioxako goi eta behe zonetan dauden udalerrietako finketan (Leza, Elciego, Oion eta Kripan).

Nolanahi ere, ez dugu gomendatzen tratamendurik egiterik baldin ez badago hostoko 2 intsektu baino gehiago (lurzatiko 25 mahatsondo aukeratu, eta mahatsondo bakoitzean ausaz aukeratutako 4 hosto aztertu).

Sitsaren kontrako tratamendurik egiten bada, eltxo berdearen aurka eraginkorrak diren gai aktiboak aukeratu behar dira.